

Ezpalak

JON TORNER

Ekainaren 19tik 21era egingo da 10. Hatortxurock jaialdia



XAKELA GAZTETXE ASANBLADA

URTARRILAREN 10EAN ospatu zen Hatortxurock musika jaialdiaren 9. eta 10. edizioen arteko zubi papera bete duen edizioa, antolatzailerak 9,5 bezala definitu dutena, Berriobeitin. Jada 10. edizioan parte hartuko duten musika taldeen izenak ere jakinarazten hasi dira. Euskal presoen aldeko jaialdia Sakanako herri batean ospatuko da ekainaren 19, 20 eta 21ean; eta besteak beste, Koma, Etsaiak, Piperrak, Banda Bassoti, Doctor Deseo, Berri Txarrak eta Deabruak Teilatueta taldeak izango dira bertan. Informazio gehiago www.hatortxurock.org webgunean aurkituko duzue.

Kultur azpiegiturak garatzeko dirulaguntzen berri eman du Jaurlaritzak

MIREN AZKARATE Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak, Euskadiko Kultur Azpiegituren Planaren barnean 2008-2012 bitartean egingo diren inbertsioen berri eman zuen pasa den astean Donostian. Orotara 97,8 milioi euro inbertituko ditu Jaurlaritzak, hamabi kultur azpiegitura garatzeko. Kopuru horren %48 bi proiektuk jasoko dute: Gasteizko Biltzar Jauregi eta Auditorioak 25,6 milioi euro; eta Donostiako Tabakalerak 21,6 milioi euro. Euskadiko Artxibo Historiko Nazionalak, bestalde, 17,5 milioi euro jasoko ditu, eta Getariako Balentziaga Museoak 4,5 milioi euro. Museo horri dagokionez, 2010 amaierarako edo 2011 hasierarako irekitzea espero dutela esan du Azkaratek.

Roberto Castonek idatzi eta zuzendutako *Ander* filma Berlingo Zinema Jaialdian proiektatuko dute. Homosexualitateari buruz mintzo da, eta Bilboko Zinegoak zinema jaialdiko inaugurazio ekitaldian estreinatuko dute, urtarrilaren 30ean, Arriaga Antzokian. Apur bat geroago Berlinale jaialdian proiektatuko dute, Panorama sekzioaren barruan. Euskaraz eta gaztelaniaz filmatu dute pelikula hori.

Txomin Peillen euskaltzainak Agosti Xaho saria jaso du. Sariak bosgarren edizioa du aurten: aurreko edizioetan Jean Louis Davant eta Daniel Landart izan dira sarituak, besteak beste. Bilboko Agosti Xaho elkarteak euskal kulturaren aktore izan diren pertsonak saritu nahi ditu ekimen horren bidez, baita Agosti Chahoren nortasuna landu dutenak ere.

Aiko taldeak *Dantzaldi Ibiltaria* ekimena jarri du abian, nahi duenari dantza tradizionalen oinarritzko pausoak irakasteko xedearekin. Bizkaiko hamalau udalerritan egingo dituzte ikastaroak, lehenengoak Zaratamon (hilaren 22an) eta azkenak Bilbon (apirilaren 30ean). Ikastaroak doakoak izango dira, baina beharrezkoa da izena aurrez ematea, 646 336 147 telefonora deituta edo www.aikotaldea.com webguneako inskripzio orria beteta.

Eresbil musikaren euskal artxiboak 5.500 dokumentu jaso zituen iaz: 2.200 partitura, 500 liburu, ikus-entzunezko 1.700 dokumentu eta dokumentazio sailerako beste 1.000 eduki. Horiek batuta, 178.000 dokumentu gordetzen ditu jada Eresbilek, horien artean XV. eta XVI. mendeetako munduko polifonia bildumarik handiena osatzen duten artxiboak.

● **Jesus Mari Lazkano margolariak *El Diario Vasco*:** «'Zaharrak' dei daitezkeen prozedurak baztertzeko joera dago, irudi teknologikoarekin erlazionatutako tresna garaikideagoen mesedetan (...) Orain hutsak diren narratiba eta ezer esaten ez duten diskurtso asko tresna garaikideen azpian ezkututzen dira. Baliabideak ez du derrigorrez mezua hobetzen».

● **Karmele Jaio idazleak *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian:** «Idatzi ala ez, gaur hemen, lapurretan egitearen apologia egin nahiko nuke. Lapurtzea ona da, sanoa, atsegingarria. Gure irudimena aberasten duen edonondik lapurtu beharko genuke. Inguruan ditugun hainbat lekutatik lapurtu dezakegu: pelikulak, poemak, musika, elkarriketak, kaleko afixak, koadroak, hodeiak... Zer-

baitek ariman kilika egiten badizu, ez pentsatu bitan, lapurtu ezazu, eraman ezazu zurekin, egizu zeurea. Inportanteena ez baita nondik ateratzen diren gauzak, baizik eta nora eramaten diren. Azken esaldi hau lapurtu egin diot Jean-Luc Godard zinemagileari».

● **Toño Pinto Glu-Glu produkzio-etxearen sortzaileak *Berton* aldizkarian:** «Antzerki arloan gabezia handiak daude Bilbon. Arriaga antzokia bakarrik dago. Bilborock aretoa ere bai. Nire ustez Bilbon ez dago antzerki politika argirik. Ez dago inor esaten duena 'hau horrela antolatu behar da'. Bilbon antzerkiaren inguruan ez dago ezer. Baina ez bakarrik euskaraz, gaztelera ere bai. Bilbon ez da hizkuntzaren kontua... orokorrean ez du antzerki politikarik».